

* Hizpideak

Definizioak

Koldo Aldabe
kaldabe@berria.info

Nazio Batuen Erakundeak oraindik ez du definitu *terrorismo* hitzaren esanahia. Hala ere, *Terrorismoaren biktimak omentzeko ekitaldia* egin du. NBEko idazkari nagusi Ban Ki-moonek biktima talde bat eta haien ordezkari eta aditu batzuk gonbidatu ditu ekitaldira. Gonbidatu gabeko asko izan dira; herrialde ugari protesta egin dute, bereziki Israelek eragindako palestinar biktimak gonbidatu ez dituztelako, bai, ordea, palestinar taldeek eragindako

biktimen ordezkari bat. Honetan Banek AEBen *terrorismo* hitzaren definizioa hartu du aintzat: «Gure edo gure herri lagunen aurkako ekintzak, herritarren artean izua hedatzea helburu dutenak».

Ezer ezohikorik ez; NBEko idazkari nagusia beste behin ere lerrokatu zen lotsagorritu gabe, Jerusalem ekialdean palestinar ordezkari batzuekin bildu zenean: «Plazer handia da Israelen egotea» esan zuen; palestinarrek, noski, harri eta zur eta haserre. Aholkulariek hankasartzearen berri eman ondoren, Banek irribarretsu: «Plazer handia da Israelen egotea».



Hitz beste
Anjel Lertxundi

Ikusezinak

Udak eman duen albiste bitxi deigarrietakoa, Estatu Batuetako zientzialariek asmatu duten sistema, eguzki-izpiak desbideratu eta hiru dimentsioetako gauzak ikusezin bihurtzeko. Adituek eta asmazoiari ikusi dizkioten aplikazioen artean, gerra eta esplotza daude, nola ez. Ez naiz kontu berriei alde txarrak bakarrik ikusi zale, baina kontuan hartzeko iruditu zait asmakizunari ikusi zaizkion aplikazioak gerraren eta bidetik joan izana. Aurkikuntzaren atzean Pentagonoa egoteak ez du errezeloa gizendu besterik egiten. Georges Wells idazleak ere, *Gizon ikusezina* nobela idatzi zuenean (Miren Arratibelek euskaratua), gaizkile imajinatu zuen bertako pertsonaia.

Aukeran, ordea, nahiago nuke justu kontrako asmazio bat, pertsona ikusezinak (sufritzen duten zernahi koloretako biktimak) ikusaraziko lituzkeen eta gure kontzientzia suspertuko lukeen akuilu bat. Humanitateari baliagarriagoa litzaioke.

😊 Axi



Askatasun bidea: 'Comète' sarearen oroitzapen ibilaldia

Joe Linehan
Irakaslea

Bigarren Mundu Gerrak iraun zuen urteetan, nazien aurkako hainbat talde klandestino —Madrilen zeuden aliatuen zerbitzu sekretuek eta enbaxadek sostengatzen zituztenak— Euskal Herriko muga gurutzatzen zuten erresistentzia eta alemanen jazarpenetik ihes ziohozenak babestu eta berriro aliatuen aldera itzultzeko. Iheslariak usaiari ibilbidea Gibraltar edo Afrika iparralde-raino egiten zuten, eta handik Londres aldera eramaten zituzten.

Comète sarea aliatuen abioi-gidariak jasotzen espezializaturako erakundea zen, izan ere, gidariak Londresetik etengabe

ateratzen baitziren alemaniarren edo hauek hartutako Europaren helburu estrategikoei tan bonbak jaurtitzera. Abioi horietako asko Holandara, Belgikara edo Frantziara joaterakoan edo etortzerakoan lurre-ra botatzen zituzten, eta gidariak bizirik ateratzen baziren, nazien esku erortzeko arriskua izaten zuten, ondorio latzak izaten zituztela erraza da pentsatzea: fusilamenduak, torturak, eta edonola, kontzentrazio-zelaiak.

Comète sarea hainbat urtez aritu zen abioi-gidari hauek lurreratzen zituzten toki ezberdinetatik jasotzen. Gero, ofizialki «neutrala» zen Francoren Espainiara bideratzen zituzten, ondoren, berriro euren tokietara eramateko.

Bidaia maiz Bruselan hasten zen, gero Parisera heltzen zen, eta muga igaro aurretik, Donibane Lohizunen eta Ziburun

elkartzen ziren. Jarraian, Bidasoa ibaia gurutzatuz, muga gainditzen zuten, eta horrela bidaia luze bati amaiera ematen.

Comète sareko osatu zuten partaide zaharrek —tardean mugaren bi aldeetako euskaldun asko— garai haietako hegazkin-gidariak eta Urdaburu mendizale taldearen laguntzarekin, antolatu dute —aurten bederatzigarren aldiz— oroitzapenezko ibilaldi hau. Irailaren 13an Ziburuko herrian hasi eta biharamunean Oartzunen amaituko da, horretarako presaturatu den egitarau zabal bat beteaz.

Jada badira 67 urte 1941ean, *Comète* sarea sortu zela. Ihes-sarea antolatu zuen talde txikia Belgikatik Euskal Herrira etorri zen, eta hemen, hainbat harreman izan zituen Francoren aurkako euskal talde batekin, haiek lagundu baitzioten

Bidasoa nondik igaro behar zen erakusten eta iheslariak jasotzen. Hala, uda hartan, Deedee De Jongh belgikar emakume gaztea Bilbora etorri zen,

eta euskal taldearen laguntzarekin, britainiar Kontsulatuan azaldu zen eta herrialde hauetako zerbitzu sekretuekin harreman sendoak hasi zituen *Comète* erakundea sendotu eta egituratzeko, zeinak, hainbat gorabehera izanagatik, bizirik iraun baitzuen alemaniarrek 1944ko abuztuan Frantzia utzi zuten arte.

Oroitzapen ibilaldi honetara, beste urteetan bezala, hegazkin-gidari zaharren ordezkari bat eta *Comète* sareko partaideak etorriko dira. Eta sendi eta lagunak osatuko duten ibiltari talde polit batek Ziburuko herriatik Oartzunerako ibilbidea —aurten, talde bat Hernaniraino joango da eta beste bat Oartzunera— oinez egingo du bi egunez, nazi-faxismoaren aurka ikuspegi eta nazionalitate ezberdinetatik esku hartu zutenei omenaldia eskaintzeko.

Oroitzapen ibilaldi honetara, beste urteetan bezala, hegazkin-gidari zaharren ordezkari bat eta *Comète* sareko partaideak etorriko dira